



OINEZ NAHIZ BIZIKLETAZ BEDAIO EZAGUTUZ

Kultur Asteburuaren baitan, II. Mendi Martxa eta I. Bizikleta Martxa antolatu ditu Artubi elkarteak, iganderako 5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-06-03

VIURTEA 1.450.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eguraldi txarra zela-eta herriko frontoian atondu zuten azoka; jende mordoak hurbildu zen postuak ikustera. P. RENOBALES

ETXEKO ARTISTEN ERAKUSLEIHORA JENDE UGARI HURBILDU DA

ALEGIA Igandean I. Artisanu Azoka antolatu zuten frontoian; kultur batzordetik «pozik» agertu dira azokak izan duen harrerarekin 4

Euriteak hainbat kalte eragin ditu eskualdean

TOLOSALDEA Villabonan izan dira kalte gehienak; Iruran ere autoak garajeetatik atera zituzten 3



Villabonako bizilagunak lanean. I.G.

Kultur Astea «arrakastatsua» izan da lizartzarrentzat 6

Buruz buruko txapela Leitzan geratuko da

LEITZA Barriolak eta Bengoetxeak jokatu dute finala, hilaren 15ean, Donostian 7



Ezker-eskuin: Antton Lekuona, Yurre Peñagarikano eta Asier Bakaikoa. E.E.

Aldaketa klimatikoa ardatz, Tolosako Aste Berdean 2

DISEINU GRAFIKO eta sormenean
oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak



TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA
WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Herriz: Pasealekua 98 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 510 876



Udaleko Ingurumen eta Kirol departamentuek bat egin dute Aste Berdea antolatzen. Argazkian: Antton Lekuona, Iurre Peñagarikano eta Asier Bakaikoa. E.E.

Aste Berdearen erronka aldaketa klimatikoaren aurka egitea izango da

Ingumena»

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna erekin bat eginez, hainbat ekintza burutzen ari da herritarren kontzientzia pizteko. Besteak beste, basoak garbitzeko lanetan ari dira, hainbat kanpaina bultzatu dituzte. Honetaz gain, Gabonetan etxeetako kontsumoa gutxitzeko zenbait gomendio banatu zituzte, eta orain ere berdina egin dute.

ESTI EZEIZA

Nazioarteko Ingurumen Eguna da etzi. Hori dela eta, Nazio Batuek izendatutako data berezi honekin bat eginez, Aste Berdea antolatu dute Tolosan. Egun honetan, mundu mailako ingurumenaren egoeraren inguruko kontzientzia piztea bilatzen da, jendearen arreta erakarriz eta politikariaren ekintzak bultzatuz. Hala, ekimen honen bat eginez, Udaleko Ingurumen eta Kirol saila batu dira aste guztian zehar jardueraz ezberdinak antolatzen. Gainera, hasteko, ostegunean berdez jantzita kalera ateratzeko deia egin diete herritarrei.

Aste Berdearen aurtengo leloa *Ohitura hori utzi! Goaz karbono gutxiako ekonomiarantz* da. Esaldi hau aukeratu dute, «gaur egun as-

kotan aipatzen dugun arazo bati aurre egiteko, hau da, klima aldaketari».

Tolosako Udalak azken denboraldian hainbat eta hainbat ekintza burutzen ari da herritarren kontzientzia pizteko. Besteak beste, basoak garbitzeko lanetan ari dira, hainbat kanpaina bultzatu dituzte. Honetaz gain, Gabonetan etxeetako kontsumoa gutxitzeko zenbait gomendio banatu zituzte, eta orain ere berdina egin dute.

Aurtengo Aste Berdean tarte berezia eskaniko diete etxeko txiki, «txikitatik hasi behar baitira hezitzen eta kontzientziazten». Hala, Errota Haur Liburutegiarekin elkarlanean, zientzia tailerrak presatu dituzte. Honez gain, herenegun jokatu behar zuen Gipuzkoako Arrantza Txapelketa hilaren 8an egingo da.

Aldaketa Klimatikoaren aurka
Klima aldaketari aurre egiteko Tolosako Udalak zenbait neurri hartu ditu. Besteak beste, orain dela gutxi, Udaltzaingorako ibilgailu hibridoa erosi dute. Ibilgailu ho-

» ASTE BERDEA

Ekainak 5, etzi

■ **Tolosa berdez jantzita.** Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Herritarrei gonbidapena luzatzen diete Udalekoek, egun horretan berdez jantzita ateratzeko kalera.

■ **12:00.** Plaza Zaharrean, manifestuaren irakurketa egingo dute haurrek.

■ **18:00.** Haur Liburutegian zientzia zirkuitoak 3-5 eta 6-11 urte bitarteko haurrentzat.

■ **19:15ean eta 21:45ean.** Leidor aretoa, Zine Foruma. Dydley Scott-en *Blade Runner* izango da ikusgai.

■ **10:00.** Ernioaldea udaltalde 21ek antolatuta, Emausen EkoCenterrera bisita. Izen-ematea 619 77 04 08ra deituta edo ernioaldeaudaltalde21@yahoo.es

Ekainak 6, ostirala

■ **17:00.** Tolosako zuhaitz esanguratsuen ezagutzeko ibilaldia. Gernikako Arbolako lorategitik abiatuko dira. Izen-ematea

943 65 25 44ra deituta egin daiteke. Edo Ingurumen Eskolan, 09:00etatik 14:00etara.

Ekainak 7, larunbata

■ **10:30.** Ernioaldea Udaltalde 21ek antolatuta, Villabonako Berdura Plazan, bigarren eskuko gauzen merkatua izango da. Izen-ematea 943 36 75 34 telefono zenbakira deituta egin daiteke, eta ekocenter@emaus.com-en.

Ekainak 8, igandea

■ **IX. Uzturreko Igoera.** 09:30ean Santa Klaratik abiatuta Uzturrera igoko dira. Musika izango da bertan eta hamaiketako egiteko aukera.

■ **Bedaioko II. Mendi Martxa.** 07:00ean abiatuko dira eta 6 kontrol gune izango dira bidean. 1.000 metroko desnibela du ibilbideak eta batz beste, 8 ordu behar dira burutzeko.

■ **Bedaioko I. Bizikleta Martxa.** 08:30ean irtetuko dira. 600 metroko desnibela du ibilbideak

nek gasolina eta motorra elektriko konbinatzen ditu. Sistema honek erregaia kontsumo murrizteaz gain CO2 emisio baxuak ditu. Teknologia hau, garraio arloan, emisio kutsatzaileak murrizteko erabiltzen da.

Bestalde, Tolosako Hiribusak biodiesela erabiltzen du. Erregai ekologikoa da hau eta ingurumenarekiko onurak ditu; landare olio,

Nazioarteko Ingurumen Egunean kalera berdez jantzita ateratzeko deia luzatu dute

Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko hainbat ekimen jarri ditu martxan Tolosako Udalak

lehenengo olio eta bertziklatutakoekin egiten da, konbustioan CO2 gutxiago botatzen du eta ez du ondorio kaltegarrik osasunerako. Hiribusaren erabilerak CO2ko 167,77 tonelada/urteko isurketak murrizten ditu.

Azkenik, Udal langileak erabiltzeko bi bizikleta berri erosi dituzte garraio modu azkarra eta garbi bezala.

eta batz beste, lau ordu behar dira burutzeko. Izen-ematea www.bedai.com edo beamekoa@yahoo.es-en egin daiteke.

■ **Gipuzkoako amuarrain eta zarboen arrantza txapelketa.** 09:00etan hasiko da, eta Oria ibaiko uretan jokatu da.

Ekainak 9-12

■ **Gidatze iraukorraren ikastaroa.** Udal eta Udal zerbitzuentzako langileentzat.

Ekainak 11-13

■ **Erosketako poltsa berrerabilgarrien banaketa etxe guztietara.** Ernioaldea Udaltalde 21en eskutik: Aduna, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkilen egingo da.

Besterik

■ **Eskola Agenda 21eko egunkariaren argitalpena.** Errota Haur Liburutegian egingo da, klima aldaketari buruzko liburuen aukera berezia.

Hilberriak eta eskertzak

JOXE MARIA LARRARTE IRASTORZA

(Kontxieta Aranbururen alarguna)

-Goian bego-

Argi bat itzali da heren lurtean berri bat piztu da han zeru ederrean. Beti jarraituko duzu gure bihotzean.

Urruzola baserriko sendia

ALKIZAN
2008ko ekainaren
3an

Alkizan 2008ko ekainaren 2an hil zen eta hiletak Andoaingo Santa Kruz parrokian, arratsaldeko 19:00etan izango da gaur.

Esker ona

M^a JESUS IRIZAR ZURUTZA

Herenegun hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Senideak: Jose eta Pepita, Martin (Lazkaoko Aita Frantzisko), Nikomedes eta Elisa, Antonio, Kontxa, Juanmiguel (zenduak); koinata: Maritxu Aranburu (Juanmigelen alarguna); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Egunotan gurekin bat egin duzenoi gure esker ona adierazi nahi dizuegu.



BEASAIN
2008ko
ekainaren 3a

BALENTIN ETXABE PEÑA JAUNA

Maiatzaren 30ean hil zen, 97 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere seme-alabak, bilobak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Balentin agurru, bere hiletan parte hartu eta une zail hauetan familiakoengana zuen babesa eskaintzera hurbildu zaretzen guzti, esker ona helarazi nahi dizuegu.



ZARAUTZ
2008ko ekainaren 3a



Villabonako Kale Berriko 5. zenbakiko garajeetan garbiketa lanak egiten atzo arratsaldean. I. GARCIA

Uholdeek ere eragin dituzte kalteak eskualdean

Natura » Villabonan eta Iruran garajeetatik autoak ateratzeko abisua eman zuten; Villabonan izan ziren kalte handienak.

IMANOL GARCIA

Asteburuko euriteen ondorioz Villabonan eta Iruran zenbait herritarrek larunbat gauean ohetik jeiki behar izan zuten, autoak garajeetatik ateratzeko. Villabonan, autoak onik atera bazituzten ere, Kale Berriko 5. zenbakiko garajeetan hainbat kalte izan zituzten bizilagunek. Urak garaje guztiaren altuera hartu zuen eta atzo egun guztian zehar hondakin guztiak ateratzen aritu ziren. Lau bat kontenedore beteko zituztela uste zuten.

Villabonako beste puntu batzuetan ere izan ziren kalteak. Taxien geltokiaren ondoko eraikina- ren garajeetan ura satu zen eta bi kotxe harrapatu zituen bertan. Udaletxearen beheko solairuetan ere sartu zen ura, bai liburutegiaren azpiko lokalean bai musika taldeek entseguetarako erabiltzen dituzten lokaletan ere.

Iruran Etxezarreta auzoan abi-



Larramendiko zubia Tolosan, irakurle batek larunbata eta igandea bitarteko gauean, 04:00etan ateratako argazkia. HITZA



Anoeta eta Irura arteko zubian Oria ibaia atzo arratsaldean. I. GARCIA

sua eman zuten autoak ateratzeko, baina azkenean ibaiak ez zuen gainezka egin. Ibaiondo industrialdean, behe batean auto bat zegoen eta urak guztiz estali zuen. Bestalde,

Anoetaren eta Iruraren arteko zubian, presaren inguruan euri-urak ez zituen jaso ibaiak eta hortaz errepidera joan ziren, putzu handi bat sortuz bertan.

Sarasola eta Tejeria musean azpitzapeldun

ANOETA » Imanol Sarasola eta Santi Tejeria (argazkian ezker-eskuin) Alkartasunako kideak jubilatuen arteko Gipuzkoako azpitzapeldunak izan dira musean lau erregeetara. Kanporaketa guztiak irabazten gozan ondoren Altzan jokatutako finalera iritsi ziren eta 3-2 galduta zuten zumaiarren aurka. I. GARCIA



«Ertzaintzak festetan izandako jarrera» salatu du ezker abertzaleak

Anoeta » Jendea zoriondu dute izandako giroarengatik eta Ertzaintzaren «mehatxu eta probokazioak» salatu.

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak «Ertzaintzak herriko festetan izandako jarrera» salatu du idatzi baten bitartez. «Aurtengo herriko festak igaro dira, idatzi hau kaleratu nahi izan dugu, batetik egon den giro alai eta herrikoia goraipatzeko eta bestetik egunero herrian jasan behar izan dugun mehatxu eta probokazioa salatuzko», azaldu dute.

Ezker abertzalekoek «goraipatu» egin dute festa guztietan zehar izan den giroa. «Eguraldiak asko lagundu ez badu ere festak oso giro ederrean joan dira», gaineratu dute. «Baina etorri ziren kanpotik euria baino oztopo gehiago izan nahi zuten eta giro on hori hausteko probokatzen aritu ziren indar polizia-ak», diote. Horrela, ezker abertzaleak salatu dituzte, «dehenengo egunetik amaitu arte jasan behar izan dugu beraien pre-

sentzia, uniformedunak nahiz paisano». Ezker abertzaleak zerrendatzen duenez, «mehatxu pintadak Gaztetxean, goizero lehen orduan pankartak eta kartelak kentzen, iluntze batean kaputxadun armatuak pankarta kentzen plazan haurrak ikaratzu eta gaueko Ertzainen furgona herriko kaleetan zehar» izan ziren gertatutakoak.

Ez dakite «nork eta zertarako bidali zituen festa giroan dagoen herri batetara, nahiz eta suma daitekeen. Baina ez zuten lortu nahi zutena, jendeak arduraz jokatzeko jakin izan zuen beraien probokazioetan ez erortzeko», azaldu dute.

Herritarrei eta kanpotik bisitatu dituztenei zorientzen die, «ertzainek izandako jarreraren aurreak erakutsitako lasaitasunarengatik». Ezker abertzaleak berresten du gatazkaren konponbidean «lurraltetasuna eta erabakitze eskubidea ardatz dituen marko demokratikoa gizarteratzen eta bere alde lanean jarraituko duela». Eta gaineratzen du «bide horretan indar armatuen horrelako jarrerek ez dutela batera laguntzen, alderantziz oztopo nagusia dira».

Udari begira hainbat ekintza Anoetan

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak bultzatuta hainbat ekitaldi egin ahal izango dira udari begira. Horrela, San Joan bezperari begira, fandango eta ariarin ikastaroa jarriko da abian. Haur, gazte eta helduei zuzendutakoak da, LH2tik aurrera, eta taldeak egingo dira adinaren arabera. Saioak hilaren 10etik 20ra dira, kiroldegian, egunero eta 10 euro ordaindu behar da.

Udaleku irekiak

Herrian udaleku irekiak izango dira LH1 eta 6 bitartekoentzat, hilaren 23tik uztailearen 8ra, eta uztailearen 9tik 24ra, asteleheneetik ostiralera, 09:30etik 13:30era. Hamabostaldi bakoitzean egun osoko irteera bat egingo dute eta gau bat pasako dute aterpe batean. Hamabostaldi bat 35 euro eta bi hamabostaldiak 60 euro ordaindu behar dira. Bestalde, udaleku irekietarako begiraleak behar dira. 18 urtetik aurrera izan behar dira izena emateko.

Bestalde, DBH1 eta DBH4 bitarteko ikasleentzat hainbat ekitaldi antolatu dira: Barreterapia saioa, uztailearen 9an, kiroldegian, 5 euroren truke.; funky-hip hop ikasteko

bisaio, uztailearen 16an eta 23an, kiroldegian, 5 euroren truke; talo tailerra, 2 egun, 5 euroren truke; irteera Sobroneko abentura parke- ra, parkan bertan, igerileku batean eta kanoa egiteko, 30 euroren truke.

Kirol jarduerak

1992 eta 1999 urte bitartean jaio direnei zuzendutako ere ekitaldi ugari antolatu dituzte. Piraguismoa Txaramako presan eta Doostiako Kontxa hondartzan, 20 euroren truke. Hipika, Zizurkilen, ordubete egunero hamar egunetan zehar, 50 euroren truke. Xakea, Anoetan, abuztuaren 10 eta 11 egunetan zehar, 50 euroren truke. Igeriketara, Villabonako Olaederra kiroldegian, 16 euroren truke. Naturako jarduerak (mendiko ibilbideak, orienting, BTT), 10 orduko ikastaroa, Anoetako inguruetan, 12 euroren truke. Ciclyng, 10 orduko ikastaroa, Abraham Olano kiroldegian, 12 euroren truke. Eskalada, Anoetako inguruetan, 10 orduko ikastaroa, 12 euroren truke.

17 urte aurrerakoentzat ere piraguismo eta eskalada ikastaroak antolatu dituzte. Ekintza guzti-guztietzat izena emateko epea hilaren 6an bukatzen da.

Eguraldi kaxkarra, baina jendea ibili da lehenengo Artisau Azokan

Alegia » «Pozik» daude bertaratu zirenak, eta «sentsazio onarekin» agertu dira herritarrek, frontoiko postu bitxiekin.

NEREA URBIZU

Alegian igande goizean bertako artisauak osatutako lehen azoka izan zuten. Kultur batzordeko kidea eta zinegotzia den Maider Jauregik «orokorrean oso pozik» daudela adierazi du, «bai parte-hartzaileak eta baita jendea ere. Sentsazio oso onarekin gaude».

Eguraldiak baldintzatu zuen jardunaldia, eta pentsatuta zuten bezala, eguraldi txarra eginez gero, frontoian egingo zutela adierazi zuten, eta hala izan zen. «Lekuarekin ere kezka genuen, dena ondo sartuko ote zen... baina azkenean

espero baino hobeto atera zen han ere. Jendea bertara ere hurbildu zen».

«Oso aberatsa» izan zen produktuen aldetik, eta jendeak ikusmina erakusten zuen postuen aurrean. Postu gehienak ikusteko zeuden baina saltzeko ere baziren, eta bitxiak mordoak.

«Protagonistei eskerrak»

Alegiako kultur batzordetik eskerrik luzatu nahi izan dizkiete «parte-hartzaileei eta baita bertara hurbildu zirenei». Postuak jarri zituztenek, «asko zaindu zuten postua, gustuarekin jarri zituzten gainera». Nork daki, datorren azoka bat eginez gero, «jende gehiago ere anima daiteke. Ez dugu oraindik ezer hitz egin, baina kultur batzordeak balantze bat egingo du eta beste baterako hobe daitezkeen gauzak ere ikusiko ditugu».



Alegiako ez zen bakarra zintzarrigilea zen, Amezketakoa. Eskulanetako ikasleek ere postua jarri zuten. P. RENOBALÉS



Egur taila, eta jendea bertan ikusten. Frontoian 20 postutik gora elkartu ziren eta gehienak alegiarrak ziren. P. RENOBALÉS

Atari eta balkoi apainen bila



Loreak banatu zituzten jendearen artean balkoiak apaintzeko. ESTI EZEIZA

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak *Atari bizi* lehiaketa antolatu du. Lehiaketaren helburua herriko atari eta balkoiak lore, zuhaixka, igokari eta beste motako landareez janztea da. Horieta interesgarri eta originalena sarituko dute santioetan. Apaintzerako orduan ez da inongo mugarik jarriko, norberaren imajinarioaren arabera uzten dute. Uztaierako beraien oparaldian egon beharko dute, epaimahaia herriko atari eta balkoi interesgarrienak aztertu eta baloratzeko.

Hiru sari izango dira. Lehenengoak bi lagunentzako landa-etxe batean gau bat eta 100 euroko balea jasoko ditu lorendea batean erosteko. Bigarrenak eta hirugarrenak 100 eta 85 euroko balea jasoko dute, hurrenez hurren. Udalak larunbatean 800 landare banatu zizkien herritarrei.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Jaka. 3 logelako etxebizitza alokatzen da. Ekaina-uztaila-abuztua. 635 75 02 93.

Z Zurea da hitza info



Jesusen Bihotzakoen irteerak

VILLABONA ● Jesusen Bihotza Ikastolako LH 6. mailako ikasleak Lesakan izan ziren. Lesakako aterpetxean egin zuten egonaldia. Primeran pasa zuten eta abenturazko jarduera mordoak egin zituzten. Bestalde, LH 2. mailako ikasleak Arratzain aldera joan ziren ibilalditxo bat egitera. Bertan animalia zein landare desberdinei buruzko informazioa bildu zuten, ondoren, gelan Txanelako liburua landu ahal izateko. JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

**TOLOSAKO INMAKULADA
IKASTETXEA**

Nestoren Elkartea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ERIZAINITZA LAGUNTZAILEA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI IRUDIA
- ERRADIOTERAPIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

IZEN EMATEA: Maiatza - Ekaina

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
 Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com



Larunbatean eskaini zuten prentsurrekoa Artubi elkarteak: Kultur Asteburuko ekitaldi garrantzitsuenak zaldi raidari buruzkoa eta igandeko martxa dira. A.I.

Kultur Asteburuan II. Mendi Martxa eta I. Bizikleta Martxa izango dira

Bedaio » Aurtengo berrikuntza bizikleta martxarena da. Igandean, 07:30ean oinezkoak frontoitik abiatuko dira.

ERREDAKZIOA

Aurten, ia ez egin zuten moduan, mendi ibilaldia antolatuta dute Bedaioan. «inguruko parajeak erakusteko helburuarekin». Mendi ibilaldi hau igandean izango da. Aurtengo berritasunen artean, bizikleta ibilaldia izango da, eta oinezkoak baino ordu bate beranduago hasiko dira ateratzen, 08:30ean.

Bedaioko plazatik (400m) irten eta zuzenean gorantz abiatuko dira. Larrondoko kontrola pasa (800m) eta gorantz Artubiko gaina (1.256m) hartu arte. Hau, Bedaioko gailurrik garaiena da. Bueltan berriro Larrondotik pasako

dira eta Azkarateko bidea hartuko dute. Azkarate herritik igaro ondoren (400m) Bedaioko zarateko kontrola (750m) dator. Hemen gauri bateko Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugaren aztarnak ikus daitezke, besteak beste, Mikeleteen etxea (mugetako polizia), nahiz eta gaur egun eroria dagoen.

Bertan ordua markatuko dute: han prest izango dituzte freskagarriak mendizaleentzat. Aurrera eginez, bide honetan ehiztarien paradak aurkituko dituzte eta ezkerrean begiratuz gero, Bedaioko gunea aurrez aurre ikus daiteke bere gainean «Artubiko tontorra topatuko dugularik».

Jazku gaineko kontrola (650 metro) pasa ondoren, basoan barrera Belarmuga baserrira (200m) iritsiko dira. Errepidez 200 metro aurrera egin eta Eskoletxe etxearen parean Bedaioako bidetxurra aldera eman beharko

dira azken pausoak. Irtsitakoan, «mendizale ororen gustukoa izango den saria izango da».

Bizikleta ibilaldia egun berean

Egun berean eta ordu bate beranduago abiatuta (08:30ean plazan), bizikleta ibilaldia ere antolatu dute. Bizikletaz ez dute Artubi mendira igo beharrik izango baina ez da xamurragoa izango. «Honetarako prestaketa behar da, ezin du edozeinek egin eta bizikletan ibiltzen ohitura handia behar da. Gogorra baina polita izango da».

Bedaioko plazatik abiatu eta Eskoletxe etxera (200m) jaitsiko dira. Hemendik gorantz, errepedez Ameketako Ezkolborro baserriaren (400m) ondotik pasako dira txirrindulariak. Aurrera jarraituz, basoko arbolen tartetik igaro ondoren, berriro ere errepedeko bidetik, Larrondoko lehen kontrol gunera iritsiko dira. He-

mendik aurrera, oinezkoen bide berdina egin ahal izango da; Azkarate, Zarate, Jazku Gaña...

Parte hartzeko hainbat datu

Izen-ematea 10 euro oraindu behar da eta izena emateko hainbat aukera eman dituzte. Webgune hauetan: www.bedaio.com, bearnekoa@yahoo.es, edo Artubi elkarteak, edo egun berean, baina ibilbidea egitera abiatu baino ordu erdi lehenago.

» IBILALDIAK

Oinezkoentzat

- **Ibilaldia.** Bedaioko II. Mendi Martxa.
- **Ordua.** 07:30ean.
- **Lekua.** Bedaioko frontoian hasi eta bertan bukatu.
- **Distantzia.** 20-25 kilometro inguru.
- **Iraupena.** 6-8 ordu inguru.
- **Oharra.** 5 kontrolguneetan ura eta freskagarriak izango dira.
- **Mota.** Ibilaldi neurtua.

Txirrindularientzat

- **Ordua.** 08:30ean.
- **Lekua.** Bedaioko frontoian.
- **Distantzia.** 20-25 kilometro gutxi, gorabehera.
- **Iraupena.** 3-4 ordu bitartean.
- **Prezioa.** 10 euro.

Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero www.bedaio.com haien webgunean, edo bearnekoa@yahoo.es helbidera idatz daitezke. Telefono zenbaki bat ere badago: 666 618 558 (Jon Balerdi).

Bedaioatarrek ilusio eta gogo handia jarri dute bi martxa hauek abian jartzeko eta horregatik, «atsegin handiz hartuko ditugu datozen guztiak». Antolakuntza maila altua behar da eta horretarako bedaioatarrek lan handia egin dute, hainbat babesleren laguntzarekin. «Sari eta laguntzaile asko izan ditugu aurten ere: HITZA, Aralar Kirolak, Shanti Kirolak, Insañus, Tolosako Udala, Itsasi, Larrañeta Berri eta Ilorreta ardi gaztak, Iñaki sukaldeak, Iñaki Balerdi harategia, Txiki Jai, Zazpitturri eta Artubi iturginak, Zabala Kafekak, Ogi berri, Kopibat, Eiten aroztegia, Mekalan eta Arsuaga eta Beristain bizikletak». Gurutzte Gorrikoak sorosleak izango dira.

Zaldi raid-ari buruz, larunbatean

Kultur Asteburuaren baitan, irailen Bedaioan izango den I. Mendi Raid zaldi lasterketarako prestakuntza moduko bat antolatuta dute larunbaterako. Honetan, Marian Guridi epailea eta Narziso Arrillaga zaldi hezitzaile eta hazi-tzaileak izango dira.

Zaldi lasterketa honetan, zaldiak ibilbidearen zati zehatz bat egin ondoren dituen ezaugarriak neurtu egiten dituzte, eta ikastaro edo hitzaldi berezi honetan, honi buruzko informazioa emango dute, erakustaldi bat egiteaz gain.

Izan ere, Artubi elkarte ingurura bi zaldi eramango dituzte.

Hitzaldi-erakustaldi hau irailen parte hartuko duten lasterkariarentzat aproposa izango da, baina baita interesa duen ororentzat, irekia baita eta ez da izena aurretik eta inon eman behar. 16:30ean hasiko da eta bi ordu inguruko delakalikulatu dute.

Talo-jatea ondoren

Zaldien erakustaldia ikusi ondoren, talo-jatea izango da Artubi elkarteak. Taloa, hirugiharra, txori-

xoa eta txokolatearekin jateko aukera izango da. Afari-merienda modukoa izango da.

Ostiralean Kultur Asteburuaren hasiera

Artubi elkarteak 21:00ak inguruan eta Kultur Asteburuari hasiera emateko, film bat jarriko dute ostiralean. Ez dute zehaztu zein izango den ikusiko dutena; han bertan erabakiko dute zein ikusi, denen artean. Ekitaldi lasaia aukeratu dituzte aurten, mendi martxan indarrekin ibiltzeko...

Ekain beltza
berriekin
eleBERRI beltzAekin




Utzi ezinik irakurtzeko modukoak




Lau liburu:
ekainak 7, 14, 21 eta 28



+ 2,9€



OHARRA: biRegioak kulatu artele eskaintza



Lazkano, Olaetxea, Barriola, Bengoetxea eta Elorzak emandako pilotaren inguruko hitzaldi jendetsua. HITZA



Eguraldia lagun ez izan arren, mendi irteera egin zuten. HITZA



Nutrizioaren inguruan egindako hitzaldia Gunea Aretoan. HITZA



Villabonako Lain musika taldearen emanaldia. HITZA



Herriko jubilatua Otsolar dantza taldearen emanalida ikusten Helduen Egunean. HITZA



Herri kiroletan lizartzarrak nagusitu zitzaizkien gazteluarrei. HITZA

«Herritarrek eta herritarrentzat»

Lizartza » Kultur Astearen balorazioa egitean «arrakastatsua, borobila, beta,...» bezalako hitzak erabili ditu «Udal Alternatiboak».

ASIERIMAZ

Maiatzaren azken txanpan ospatu zuten Lizartzan 2008ko Aste Kulturala. «Udal Alternatiboak» 7 egunen inguruko balorazio positiboa egin du nahiz eta «herrian oztopo handiak» dituztela onartu.

Hala eta guztiz ere, egindako lanarekin «gustura eta gogotsu»

agertu dira, «herritarrek eta herritarrentzat lan eginaz Lizartza aurrera aterako» dutela aipatu baitute antolatzaileek.

Bolondres bezala lan egin zuten guztiei eskerrak eman ostean, «aurrerantzean lanean jarraitzeko gogoak indartu» zaizkiela esan dute «Udal Alternatiboko kideek», izan

ere, «herritarren lanarekin, parte-hartzearekin eta gogoarekin gauza politak egin daitezkeelako».

«Aste borobila»

Kultur Astearen barnean egindako ekimenetan jende ugari bildu dela aipatu dute antolatzaileek. «Aste borobila izan dugu. Astearen zehar egin diren hitzaldi eta ekintzetan jendearen parte-hartzea handia izan da eta talde hauetan egon den giroa atsegina izan da».

Asteburuko ekitaldiekin ere gustura agertu dira nahiz eta egu-

raldiak aldaketak eragin zituen egitarauetan; «larunbatean eguraldiak huts egin zizun hein batean, Goltzurko zelaira igo nahi genuelako baina beste ibilbide polit bat egiteko moduan izan ginen eta umeak eta gurasoak ederki pasatu genuen. Igandean helduek hamaitaketa eta bazkari paregabea egin zuten». Otsolar dantza taldearen emanaldia eta Lizartza-Gaztelu arteko herri kirol lehia ere azpimarratu dituzte, Lizartzak Gaztelu garaitu zuela gogorarazi nahi izan dutelarik.

«Kuadroen ikusmina»

Azkenik, 2008ko Kultur Asteak iraun zuen egunetan kuadro erakusketak sortutako «ikusmina eta harridura» aipatu nahi izan dituzte: «Ainhoa Azpirozek honelako kuadroak? Aitorrek, *Tarzanitok*, kartzelan 7 urtetan pinturan ikasi duenak harritu gintuen. Hauiekin batera, Tolosako Etxarriren 3 kuadroak eta Pablo, Lizartzako artista, eginiko liburuak sortutako zalantzak» aipatu dituzte ikusmin horren iturburu bezala «Udal Alternatiboko kideek».

Pilotarentzat eta Leitzarentzat egun handia izanen da ekainaren 15a

Pilota » Barriolak Gonzalezi irabazi ondoren, Bengoetxea VI.aren aurka jokatu du finala, txapela Leitzan geldituko delarik.

NAIARA GARZIA

Barriolak edo Bengoetxea VI.ak irabazi, hilaren 15ean jokatu den finalaren txapela Leitzan geldituko da ez bairik gabe. Hirugarren aldian izanen da herri bereko bi seme-aren arteko finala suertatzen dela, eta gauzak horrela, pilotariak ezezik herriak berak ere protagonismoa hartu du komunikabideetan.

Bai Bengoetxearentzat bai Barriolarentzat ere final berezia izanen da, bi pilotariak ilusioz beterik baitzeuden horrela gerta zedin.

Garaipen erraza

Barriolak aise irabazi zion herengun Gonzalezi. Leitzarra ederki aritu zen eta Gonzalezi ez zion irabazteko aukerarik utzi. Txapelketako bigarren finalerdia astebeteko atzerapenarekin jokatu zen, Gonzalezen lesioa zela eta, baina atzerapen hori ez zen berarentzat nahikoa izan eta Barriolak bere jokorik onena erakutsi zuen kan txan.



Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea ariko dira aurrez aurre Buruz buruko finalean. J. SAIZAR

Leitzarrak ikaragarri ongi jokatu zuen bai defentsan bai atakean, 17 tanto lortu zituen eta huts egite bakarra izan zuen, sake batean egindako falta, alegia, eta hauxe izan zen, hain zuzen ere, bere aur-

kariaren lehenengo tantoa, markagailua 9-1 jarri zuena. Lehenengo tantoetan Gonzalez gogor hasi zen arren, bederatzigarren tantotik aurrera leitzarrak defentsa ez zuen hainbeste behar izan, bere

aurkariaren jarrerak behera egin baitzuen. 14-2 zihoztela, Gonzalezentzat unerikerabakiorrena iritsi zen, 14-3 zihoztela Gonzalezi bere lesioak min eman baitzion eta aldagelatar joan behar izan zuen,

eta kantxara itzuli zen arren, partida amaitu bitarte errenka jokatu zuen.

Barriolarentzat hau bakarkako zortzigarren finala izanen da. 2 txapela lortu ditu, bata lau 'erdian, bestea buruz burukoan, eta hirugarren lortzeko asmoa zuela azaldu zuen partida amaieran. «22-8 amaitu arren, partida borrokatua izan da, Gonzalez airean sartzen delako eta pilota urruti bidaltzen duelako».

«Miriria»

Aurreko batean Julian Iparragirek azaldu zuen bezala, oso zaila da herri bereko bi pilotari horrelako final batean elkarren aurka aritzea eta gauza bera azpimarratu zuen Barriolak norgehiagoka amaitu zenean. «La miriria da. Azkenean gauzak horrela gertatu dira eta Leitzan bezalako herri txiki batentzat, hori miriri bat da».

Finala igandean finalaurrekoa jokatu zen leku berean izanen da, Donostiako Atano III.a pilotalekuan, betiere, pilotariak lesioarik ez badute behintzat.

Hilaren 15ean, beraz, Buruz Buruko Txapelketan, hirugarrenegoz, herri bereko 2 pilotari lehiatuko dira: Atano III.a eta Atano VII.a izan ziren aurrenekoak duela 60 urte inguru, eta Gorostiza eta Garziario IV.a hurrenak. Egun handia izanen da ez soilik pilotarentzat, baita Leitzarentzat ere eta horregatik Udala egun hori behar den bezala ospatzeko prestaketa lanetan dihardu.

S Soka motzean

«Urte askoan lanbide honetan jarraitzea da nire ametsa»

ARANTXA IPARRAGIRRE,
Irrati-esataria

N. GARZIA

Arantxa Iparragirre (Leitza, 1964) Karrape Irratiko esataria da eta 15 urte daramatza egunero goizetan Unai Zabaletarekin batera herriko etxeak alaituz.

Libururik gustukoena?

Aho bizarririk gabe, Imanol Lazkano bertsolariarena. Oso ona iruditzen zait.

Orain zer irakurtzen ari zara?

Joxerra Gartziaren azken liburua.

Abesti bat?

Mikel Urdangarinen edozein.

Disko bat?

Imanolen *Joan-etorrian*.

Oporretarako leku bat?

Kataluniako Pirinioak, Aran ingurua.

Edari bat?

Ardo gorria.

Arantza edo Leitza?

Biak. Gaur egun bizitzeko Leitza eta egun berezietarako Arantza.

Telebistako programa bat?

Horrelako da bizitza.

Zuhaitz bat?

Pagoa edo lizarra.

Amets bat?

Urte askoan lanbide honetan jarraitzea da nire ametsa.



N. GARZIA


L Laburrak

Jeiki abesbatzak finalerako bi txartel zozketatuko ditu

LEITZA ● Jeiki abesbatzak eta Sinfonietta Academica Orkestrak laguntza-zozketa antolatu dute, izan ere, abenduaren 21ean kontzertua eskainiko dute eta zozketan jasotako dirua horretan erabiliko dute, joan den urtean ez baitzuten dirulaguntzarik jaso. Buruz buruko finalerako 2 txartel zozketatuko dituzte eta zozketa datoren astean egingen dute, Barriolak eta Bengoetxeak material hautaketa egingen duten egun berean eta zuzenean izanen da, Karrape Irratian egingen dutelarik.

Immersoko oporretan izena emateko epea zabalik

LEITZA ● Leitza, Aresoko, Goizuetako eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak adinekoentzat Immersoko oporrak antolatu dituzte, eta horretarako aukera bat baino gehiago jarri dituzte: Balear Uharteak, Kanariak eta Portugal. Bestalde, bidai kulturalak eta naturako turismoa delakoak ere antolatu dituzte. Bidaia hauetako batean parte hartzeko izena emateko epea ekainaren 10ean amaitzen da, eta Gizarte Zerbitzuetan egin behar da, aurretik ordua hartuta (948 51 08 40 zenbakian).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



19°
11°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. EURIA
BEROENA 20°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Udal batzarra izango da udal batzar aretoan 19:30ean. Bertan ezker abertzaleak aurkeztu dituen bi mozio eztabaidatuko dira.
■ **Tolosa.** Zuhaitz esanguratsuak ezagutzeko ibilaldia ostiralean 17:00etan Gernikako Arbolaren lorategietatik abiatuta. Izen-ematea, 943 652544 telefonoan (9:00etatik 14:00etara).
■ **Tolosa.** Emausen EkoCenter-era bisita egingo dute ostegunean 10:00etan. Izen-ematea, 619 770408 telefonoan edo enioaldeaudaltalde21@yahoo.es helbidean.
■ **Bedaio.** II. Mendi Martxa eta I. Bizikleta Ibilaldia antolatu dituzte ekainaren 8an. 6-8 ordu inguruko ibilaldia oinez 07:30ean abiatuta eta 3-4 ordukoa bizikletaz, 08:30ean abiatuta. Izen-ematea, Artubi elkartean.

Mendi irteerak.

■ **Tolosa.** Arteta-Uharte Arakil mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek ekainaren 8rako Treku (1.265 m), Leziza (1.350 m) eta Beriain (1.493 m) mendiak igoz (7 ordu inguru) Izen-ematea, elkartean (943 652789).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Azken musika doinuak

TOLOSA • Udal Musika Eskolak antolatutako Musikaria Asteari herenegun eman zioten bukaera. Aste osoz musik ekitaldi ugari egin dituzte. Amaiera ez zen nolanhikoa izan. Izan ere, ikasleen Bandaren kontzertua izan zen entzungai Berdura plazan. Kontzertuak jende asko erakarri zuen eta Berdura plaza entzuleez gainezka egon zen. Aurretik kalejira ere egin zuten herriko kaleetan zehar. I. SAIZAR

A Agurrak




Urte askoan!

Unai Mendez (Anoeta). Gaur 4 urte. Atzoko partetik. Egun zoriontsua Naroa, aitaxo eta amatxoren partetik.



Urte askoan!

Loinez Peña Olazabal. Gaur 4 urte. Etxeko guztien eta bereziki Jon Ander eta Aneren partetik.



Urte askoan!

Etxeko kantariña. Ahhh!! «Janari makrobiotikoa» jan beharko duzu gaur. Ea bizkotxoaa bezain goxoa dagoen.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



- ➡ Nahi baduzu ikasi eta lan, kontratu iraunkor batekin...
- ➡ Nahi baduzu hiru urtetan mekanikako goi-mailako zikloa...
- ➡ Nahi baduzu goizean ikasi, arratsaldean lan...

deitu gure institutura!

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra